INAUTERIA 2002

majestik

- Pasai Antxoko dendan, nazio zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu: Zeta, tertziopeloa, lentejuelak, lumak,…
- Peluka, maskara eta bestelako osagarrietan aukera zabala aurkituko duzu bertan.
- Eskaparate edo merkatal zentroetarako irudiak, eta inauteriko desfileetarako karrozak alokatzen ditugu.
- Festa, dantza eskola, antzerki edota inauteriko konpartsetarako arropak egiten ditugu.

Oarso kalea 13 behea. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 340 064. Faxa: 943 529 783

Web orria: www.iturgaiz.com – e-mail: majestik@iturgaiz.com

majestik

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13era eta 16tatik 20tara.

Larunbatak irikita goiz eta arratsaldez.

bromka

Pasaiako herri-aldizkaria

Atzegi, adin urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako Gurasoen Elkartea

Multi ESKAINTZAK

MULTIOPTICAS

Ba al dakizu zer dagoen begirada eder baten atzean?... Eta aurrean?

BONARDI AIREKO ARMAZOI BERRIAK

49 € 8.153 pta.

*Eskaintza baliozkoa 2002/02/28 arte



BERGARA
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE
Tel. 943 79 29 95

ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88

SUN TROPIK

EIBAR
Tel. 943 20 05 22

ERRENTERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS

branka

Pasaiako herri aldizkaria

2002KO URTARRILA/ 23 ZENB.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 689 78 33 17

Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behekaldean duzun kupoia bestrik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaiako herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:

Pasaiako Udala

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

laburrean

4-5. EZ ZAITEZ MOZTU

6-13. BARRUTIZ BARRUTI

14.ELKARRIZKETA
Mari Carmen Castro, Atzegiko kidea

18. KALE-INKESTA
Zertaz mozorrotuko zenuke Pasaia?

20. ERREPORTAJEA
Pasaiako estazio ozeano-meteorologikoa

24. OROKORREAN

25. LEHIAKETA

26. KRITIKAK

27. HORRELAKOAK GINEN



EKiLORE
ALTZARI OSAGARRIAK
ETA
DEKORAZIO-GAIAK
Hamarretxeta, 6
Tel.: 943 522655
20110 PASAI ANTXO

AHTa ez da kamioien garraioak eragindako kalteen aringarri izango

Ibarretxe lehendakariak eta Akitaniako presidenteak AHTaren aldeko 'lobby' bat osatzeko izenpetu zuten deklarazioa dela eta, AHTaren aurkako asanbladak honako hau adierazten du:

1- Ibarretxek eta Rousset-ek izenpeturiko deklarazioak, Frantzia eta Espainiako gobernuei nahiz Europako Batzordeari AHTa eraiki dezaten presioa egiteko helburuarekin 'lobby' bat osatzeko asmoa finkatu duen bitartean, afektaturiko herrien eta jendeen iritziaz guztiz axolagabetu da. Jaurlaritzak eta Akitaniako agintariek, Bidasoaren bi aldeetan kalteturiko lurraldean herritarren partetik AHTaren aldeko jarrerarik ez dagoela, baita jendearen aldetik erresistentzia topatu ere, herrien erabakitzeko ahalmenari zeharo bizkar ematen dion prozesu berri bat abiarazi dute. Horrekin, leize gero eta sakonagoa zabaltzen ari dira AHTa bultzatzen duten indar ekonomiko-politikoen eta halako azpiegitura erraldoiekiko oposizioa erakutsi dugun gizartearen sektore askotxoren artean, ingurugiroari kalte larriak eragiteaz gain gizarte eredu bat inposatzea dakartelako.

2- Jaurlaritzak eta Akitaniako agintariek AHTaren beharrizana zuritu nahian eman duten arrazoiaren faltsukeria salatzen dugu. Hau da, AHTaren alde kamioi kopurua gutxituko dela esatea eta antzeko beste sasi-argudio horiek- hain zuzen ere, joan den asteko adierazpenetan aditzera eman dutena, AHTaren aldekotasuna lortzeko- amarrukeria hutsa dira. Aitzitik, AHTa eta harekin batera bultzatu nahi duten Euskadi-Akitania Plataforma Logistikoa gauzatzeko, merkantzien trafikoa areagotzea eta errepide, trenbide nahiz itsas portu sareen bidez garraio fluxu ahalik eta handienak erakartzea nahitaezkoa da. Hortaz, AHTaren eta harekin loturik eraiki nahi diren plataforma logistikoen egitasmoa ez dator inondik inora trafikoaren guztizko kopurua mugatzera, orekatzera eta azken batean gutxitzera, areagotzera baizik; eta ondorioz, garraio-sistemak, bere osotasunean hartuta, ekologia zein gizarte arloetan eragiten dituen kalte globalak handiagoak izan daitezen eragingo du.

"Merkantzien garraioa areagotu nahi dugu", dio honen inguruan 'Eurohiriaren Liburu Zuria'k; eta segidan, hizpide dugun gaiari helduz, beste honako hau gaineratzen du: "Aldi berean, baina, bestelako arazoa sortzen da, horrek dakarren kamioien garraioaren etengabeko hazkundearekin zer egin, alegia. Orduan, zalantza hori sortu ahala, begiak trenbide sare berrira bihurtu behar dira. Soluzioa izango al da? Kamioien trafikoarekiko alternatiba izan al daiteke?.

Jarraian, baina, ezetz dio biribilki, honako hau adierazten duenean: "Behin eta berriz adierazi dugun bezala, trenak etorkizunean kuota handiagoa hartzen badu ere, inoiz ezingo du merkantzien portzentaje esanguratsu bat bereganatu. Kamioiez egiten jarraituko da hori nagusiki". Ildo berean, etengabe aipagai duten 'intermodalitatea'ren kontua dela eta, honako hau adierazten zaigu 'Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoen Plan Estrategikoa'n: "Merkantzien garraioaren garapena eta, batez ere, intermodalitatearen garapena, plataforma intermodalak lotzen dituzten eta elikatzen dituzten errepide- eta autopista-sareen kalitatearen menpean daude bereziki". Argigarriak aipamen hauek, edukirik gabe uzten dituztelako Ibarretxe eta Rousset-en adierazpenak. Hartara, AHTarekin batera, 720.000 milioi pezeta (4.500 milioi euro) xahutzeko asmoa dute datozen hamar urteotan errepide-planetan EAEko erakundeek (Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek), parerik gabeko sukar desarrollista batek jota. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtatu duenez, Irungo mugaz gaindiko pasabideak, non gaur egun eguneko 38.000 ibilgailuen zirkulazioa zenbatzen den, "eguneko beste 42.000 kamioi eta auto gehiagoren trafikoa jasateko gaitasuna du" ... Bistan da, beraz, AHTa ez dela errepide bidezko garraioak eragindako kalteen aringarri izango. Datuak hor daude, eta gauzak faltsutzen jardutea alferrikakoa da: honi dagokionean, bi gobernuek egindako adierazpena gezurra eta funtsik gabeko iruzurra da, hain zuzen ere AHTaren beharrizana justifikatzeko duten arrazoi falta estaltzeko elementu zuritzaile bezala erabilia dena.

Funtsean, gertatzen dena zera da. Proiektuak aurrera egiteko dituen zailtasunak eta atzerapenak ikusita, estatuen aitzinean eta Europan lehentasuna irabazteko proposaturiko estrategia berria, AHTaren trenbidea beste hainbat proiekturekin uztartzea da, nola edo hala 'Euskal Y'aren inguruan interes ekonomikoa sortzeko. Hartara, AHTarekin batera merkantzien garraiorako azpiegitura-lan eskerga bat zehazteko bidean dira: besteak beste, tartean daude Gipuzkoako Merkataritza Ganberak bultzaturiko Jaizkibelgo Superportuaren egitasmoa eta AHTaren korridorearen inguruan alderik alde kokatuko liratekeen plataforma logistiko intermodalen sarea, bakoitzak 100 hektarea inguruko lurrazalarekin. Egitasmo horiek guztiek ingurune naturala eta sozialarekiko erasoa larriagotzea dakarte berekin, instituzioen azpiegitura eta garraio politikaren jite txikitzaile eta sostengagaitza berretsiz. Bestalde, isilpean gordetzen dituzte izaera honetako trenbide-azpiegitura batek, 'Euskal Y'a aldi berean bidaiarien Abiadura Handiko zirkulaziorako eta merkantzien garraiorako bereziki prestatuak izanik, segurtasunari begira planteatzen dituen arazo serioak eta larriak, eta are gehiago ibilbidearen zati luzeak tuneletan dituenean ('Euskal Y'aren egitasmoak guztira 105 km. dauzka tunelean).

3- Azkenik, IU-EBk AHTaren auziari buruz Jaurlaritzan duen jarrera inkontsekuenteaz berriro ohartarazi behar dugu. Zergatik ez digu esaten herritarrei Jaurlaritzan daraman gestiotik ezin dugula ezer espero? Erakundeen inposizioaren azken pasarte honetatik ondorioak atera ditzaten eskatzen diegu, oraindik hori egin ez badute.

4- Azken urteotan euskal gizarteak gertutik edo urrunagotik bizi izan du gatazka luze hau. Asko dira AHTa geldiarazteko emandako arrazoiak -oraindik orain erantzunik jaso ez dutenak-, AHTak bai ekologia arloan eta bai gizarte-ereduari dagokionez duen eragin bortitza dela eta. Hortaz, inpaktu ekologiko nahiz sozial larriak eragingo lituzkeen makroproiektu hau gelditzeko kapaz izango den mobilizazio indartsu bati bultzada ematea da gure aukera. AHTaren aurkako oposizioak bat egiten du, gainera, mundu osoan hainbat herri-mugimendu egiten ari diren gisa bereko borrokekin, "desarrollismo"aren aurrean antzeko sentimenduak, ideiak eta jarrerak banatzen dituztenak.

AHTaren Aurkako Asanblada

Zer arraio da entzuten ari naizena?

- Musika.
- Zer dela eta ?
- Gabonak jakina.
- Baina ez dugu oraindik Santo Tomas eguna pasa eta.
- Berdin da, herriari giroa eman nahi diogu.
- Zeintzuk zarete zuek ba herria girotzeko?
- LAURAK BAT (Pasaiako merkatarien elkartea).
- Zer egon behar dugu erregeak pasa arte musika entzuten?
- Jakina, goizetik arratsera egunero, jai-egunak kenduta .
- Zuek al zarete Djak?
- Bai gu gara, eta gustu onekoak gainera. Komunera joaterakoan ere ederki alaituko zaitugu gure musika aukerarekin, ez baikara Gabonetako abestietara bakarrik mugatuko.
- Hau zoriona. Urte osorako nahi nuke. Horrelako ideiekin betirako zoriontsu geundeke.

Gogaikarria benetan musika horren inposaketa, jendearenganako errespetu falta ikaragarria eta Gabonekin zer ikusirik ez duena. Horrelako ekimenak sar ditzatela ...tik barrena.

Borja Arratibel

Brankazaleok, hementxe duzue zuen txokoa zuen kezkak, zalantzak, iradokizunak edo dena delakoak Pasaia osotik zabal daitezen. Bidali iezaguzue gutuna, eta guk, inolako mozkinik gabe, argitaratuko dugu. Horrela helarazi diezaizkigukezue zuen aportazioak:

postaz: eskalantegi 38 behea, 20110 Pasaia
e-postaz: branka@euskalnet.net
telefonoz: 943 34 10 45

TESTUAK: MARKOS SISTIAGA/ JON VICENTE/ OLATZ SISTIAGA/ LUIS Mª LABOA,/MARIPI ETXARRI

donibane

Antxon Basurko: korrikalaria

Antxon Basurkorentzat kirola beti izanda hobby bat, gustura egin izan duen gauza; ia egunero 2 ordu ematen ditu Anoetako atletismoko instalazioetan, baina horrek ez dio inongo sakrifiziorik suposatzen; alderantziz, gustura aritzen da ariketak, serieak edo lasterka egiten. Agian horrexegatik, oraindik orain, eta 54 urte dituelarik, 100 eta 200 metroko lasterketetan, beterano mailan, Europako onenen artean sailkatuta jarraitzen du.

Kalean ikusita, bere ibilera lasaiarekin, inork ez luke esango 100 metroko lasterketa 10,7 segundotan, 200 metrokoa 21,6 segundotan, edo eta luzera jauzian 6,86 metro egiteko gai izan denik. Marka horiek bere gazte denboran egindakoak diren arren, gaur egun poliki eusten dio formari eta hemendik aurrera ere horrela jarraitzea du helburu.

Nola hasi zinen atletismoan?
17 urterekin, Mikel Uriartek eta Ramon Puy-k animatuta "Club Atletico Renteria" taldean hasi nintzen, eta hasiera polita izan zen, zeren urte horretan bertan Gipuzkoako txapeldunak geratzea lortu genuen. Ondoren, taldean lau bat sanjuandar geundenez, garai hartan San Juanen osatu zen Koxtape taldera pasa ginen, hasiera batean Koxtape arraun olinpikoko eta atletismoko klub bezala funtzionatzen hasi baitzen. Bertan urtebete egin eta gero, Mikel Alkarazekin batera "Atletico San Sebastian" taldera pasa nintzen, eta hemen hasi ginen serioago, entrenadore batekin e.a., eta klub honetan jarraitzen dut oraindik.

Zein espezialitatetan aritzen zinen?
Hasieratik abiadurako frogatan, 100 eta 200 metro eta luzera jauzian. Hastapen haietan luzera jauzian moldatzen nintzen ondoen, eta "canguro" ezizena ere jarri zidaten.

Zergatik erakartzen zaitu hainbeste atletismoak?
Zeure buruarekin aritzen zara lehian beti hobetzen joateko asmoarekin, marka hobeagoa egiteko asmoarekin. Niretzat lasterketa batean lortzen duzun postua baino inportanteagoa da espezialitate bakoitzean duzun marka, horrek ematen dizu benetako neurria. Guzti hori lagun artean egitea da niretzat erakargarri egiten duen arrazoi handiena.

Oraindik lehiatzen jarraitzen duzu?
Bai, gaur egun beterano mailan txapelketa asko antolatzen da; Europako eta Munduko txapelketak ere izaten dira, eta beste herrialdeak eta bertako kirolariak ezagutzeko aukera polita izaten da. Esan behar dut gehienetan finaletan sartzea lortzen dudala, eta horrek ere motibazio handia suposatzen du niretzat.

Dagoeneko udaran jokatuko den Europako txapelketa prestatzen ari da, finaletan sartzeko gogor entrenatzen du, baina beretzat helburu nagusia ondo pasa eta bere buruarekin ondo sentitzea da.

Motoraren hondoratzea

Pasa den urtarrilaren hasieran, eta oraindik Urtezahar Eguneko ajea igaro gabe zegoela, San Pedro-Donibane ibilbidea egiten duen motoretako bat, Mª Begoña izenekoa hain zuzen ere, hondoratu egin zela jakin genuen.
Badirudi gertakizuna gauez gertatu zela, eta ondorioz motora hondoraturik gelditu zen, baina kabina Alabortzako arroketan agertu zen.
Handik egun gutxitara , eta urpekari baten laguntzaz, motora ur gainean jarri zuten. Momentu honetan (artikulua idatzi dugunean), motora Donibaneko ontziralekuan lotuta dago.

Gertaera hau dela eta, Brankatik motoretako arduradunarekin hitz egitera joan ginen, eta motorarekin zer egiteko asmoa zuen galdetu genion: konpondu, horrela utzi... Berak, paper-arazoak zirela medio, ez zekitela zer egingo zuten erantzun zigun. Baliteke, Branka aldizkariko zenbaki hau ateratzeko garaian motora konpontzen egotea edo leku berean jarraitzea.

komikia *Aitor Puy*

trintxerpe

Club Deportivo Trintxerpek, 75 urte beteko ditu aurtengoan

Trintxerpeko kirol elkarterik zaharrena izango da ziurrenera. Club Deportivo Trintxerpek, 75 urte beteko ditu aurtengoan, eta betetako urte bakoitzarengatik itxafero bat boteaz hasi zituzten ospakizun ekitaldiak. Bi astez Trintxerpeko Alkateordetzan argazki erakusketa bat izan dute zabalik. Erakusketa horretan, argazkien lekukoa erabili dute 75 urteetako historiari gainbegirada egiteko.

Hona hemen gure barrutiko Alkateordetzan C.D. Trintxerpekoek antolatu duten erakusketa. Bertan, kirol erakunde honen ibilbidearen berri ematen digun argazki erakusketa bat aurki dezakegu, beste gauza askoren artean.

Erakusketa gela futbol zelaia bailitz apainduta zegoen; sarreran, Trintxerpeko jantziarekin jantzita zegoen jokalari batek egin zigun harrera. Argazkirik zaharrena, 32/33 denboraldikoa zen. Argazki honek ematen zion hasiera regional taldearen urtez urteko argazkien segidari. Segida honetan azkena, denboraldi honetako taldearena. Baina regionalen taldeen argazkiez gain, baziren ere beste hainbat taldeenak, oinarrietako taldeenak hain zuzen ere: infantilak, jubenilak, kadeteak...

Argazki erakusketan zehar beste hainbat gauza kurioso ikusteko aukera ere izan genuen: Bidebietako Tiro zelaian jokatzen ziren torneoak (Trintxerpen tokirik ez zegoela eta hara joaten ziren), Hondartzako torneoak, Pobladoko Txapelketak...

Urte hauek posible egin dituzten hainbat lagunei egindako omenaldien argazkiak ere baziren; Nemesio Goyari egindakoa, Guillermo Rey Novo eta Fermin Larrañaga "Saltsas".

Urtea ondo hasi dute beraz, CDTkoek. Aurrerantzean egingo dituzten ospakizunak ere Branakako orrialdeetara ekartzeko konpromisoa hartzen dugu, merezi dutelako!

Azoka eziezkoa!



Urtarrilean horrelako kartelak aurkitu ditugu Trintxerpeko Azokan. Arrazoi osoz idatzita daude kartel hauek, ezinduentzat, benetan ezinezkoa baita Azokako edozein bazterretara igotzea. Horregatik, bai Trintxerpeko Brankako lan-taldekoek eta baita Abaraska Euskara Elkartekoek ere gure barkamena eskatu nahi dizuegu ezinduta zaudeten guztioi, gu ere Azokan egonda ezin baitzaituztegu gure bulegoan hartu. Fisikoki gure ateak zabaldu ezin dizkizuegun arren, jakin ezazue, zuen proposamenetara zabalik gaituzuela 943 391000 telefono-zenbakian edota abaraska@topagunea.net helbide elektronikoan.

Arazoak konponbiderik badu zuekin batera hau aldarrikatzeko prest gaudela ere esan nahi diogu herri guztiari, finean, arazo hau, ezinduena baino gainontzeko guztiona ere badela uste dugulako. Azokak iraungo badu, Udalari bitartekoak jartzea eskatu beharko genioke, Azokako eraikinean zerbitzu publiko ugari eskaintzen baitira egun: dendak, Euskara Elkartea, Oarsoladeko enplegu-bulegoa, Laurak Bat merkatarien bulegoa, sindikatuen bulegoak, alderdi politikoen bulegoak....

Trintxerpeko Perzkin eta Inauteriak

Otsailaren bian iragarri zuten Hungariatik Trintxerpera iritsitako perzkinek inauteriaren etorrera. Otsailaren 15, 16 eta 17an izango dira, hain zuzen ere, inauteriak Trintxerpen. Gure herriko kaleak, musikaz, kolorez, dantzaz... beteko dira aurten ere.

Trintxerpeko

Brankako lan taldea handitu nahi dugu

Hilero Trintxerpeko bi orrialdeak betetzea izaten da gure ardura nagusia. Brankako gai orokorretarako ekarpenak egitea, inoiz edo behin amonaren argazkiei hautsa kentzea eta kale-inkesta ere egiten ditugu. Ez gara ez kazetariak, ez idazleak (baten bat bai, baina normalean argazkilari-lanak ematen dizkiogu berari) ezta argazkilari profesionalak. Saiatuak izaten ahalegintzen gara, eta hori lortuz gero konforme. Oraintxe, ordea, gure taldetxo honek aurrera egin dezan indar berriak behar ditugulakoan gaude, eta horregatik, zu gonbidatu nahi zaitugu gurekin batera Trintxerpeko Brankako lan-taldea osatzera. Anima zaitez eta deituiguzu 943 391000 telefono-zenbakira.

Trintxerpeko aulki berrien gorabeherak

Ez omen da denon gustukoa izan aurreko Brankako alean Trintxerpeko Euskadi Etorbidean jarri berri dituzten aulkiei buruzko artikulua. Inoiz ez omen du denen gustura euria egiten, eta tira! Zer egingo diogu ba! Guk idatzitako artikuluan gure iritzia plazaratu genuen. Beste inork berea plazaratzeko gogoz egonda, badu gure Brankan horretarako aukerarik. ***Ez zaitez moztu!*** Atala beti dago zuen ekarpenetara irekia. Animo!

98.5 F.M
RADIO DONOSTI
DONOSTI IRRATIA
betiko musika
98.5 F.M
RADIO DONOSTI
DONOSTI IRRATIA

TESTUAK: ERKUDEN MUGURUZA / BERNAR ARRATIBEL

san pedro

Harri-lapurrak

Herriko plazaren birmoldaketa obrak direla eta, eliza besarkatzen duen pretil zaharra, bat-batean, beste nonbaitera joana dela sumatu dute herri honetako pretilzale askok. Salaketa, urtarrilaren hasieran, plaza aldeko elizaren horman herriko norbaitek zintzilikatutako paskin batzuetan azaltzen da.

Bertan, herriko ondare artistiko hau non ote dagoen galdetzeaz gain, bera mantentzearen aldeko dokumentazio historiko interesgarri bat ere agertzen da: Martin de Carrera, 1774ko eliza honen arkitektoak, elizaren kanpoko horma aldeak 1457ko eliza zaharraren dorreko eta sakristiako materialekin eginda daudela adierazten du.

Hau guztia kontuan harturik, eta herrian harrizko pretilek jasan izan dituzten erasoak kontutan izanik (Torrea, frontoia...), herritar talde bat Udaletxera hurbildu da irtenbide baten eske. Alkateak, guzti honen berri jakitean, pretilaren obrak gelditu, eta harriak berriro bueltan ekarri ditu; oraingoz, bueltan ekarritako 20 bat harri hauek, Pasaia S.A. enpresa erraldoiaren ondoan etzanda aurkitzen direlarik.

Aldi berean, ondare artistikoetan Aldundiko adituek harriak aztertu dituzte, eta, nahiz eta noizkoak diren ezin ziurta dezaketen, haien balio arkitektoniko gabezia baieztatu dute.

Hala ere, badirudi, pretil zaharra berreskuratzeko ahaleginetan dagoela Udala. Gertatzen dena zera da: bueltan etorritako harri-kopuru eskasak pretilaren zati bat betetzeko adina bakarrik ematen duela. Gutxienez, hala izan dadila.

Harribitxiak Kofradian

Arrain-buru espazialak begia, zirrikituak...Pintxo hotz eta beroetan berezitasun aparta erakusten duen Kofradia taberna, arte galeria ere bilakatu zaigu azken hilabete honetan. Oraingoan, Javi Abal, Pobladoko artista eta kale "performance" egile ospetsuaren harri landuak ikusteko, eta erosteko, aukera eskaini digu herriko balkoidun taberna politak.

Lehendik ere aski ezaguna genuen Javiren harria lantzeko trebezia, batez ere, Kalparrako arroketan berak egindako interbentzio artistikoa, Aranzadi elkarteko teknikoek arakatu zutenetik. Beraz, ez galdu aukera, eta joan zaitezte eskultura bitxi hauek ikustera. Harriak, sarrerako "Menorquina" izozki-makinaren gainean aurkitzen dira, eta, batez beste, 24 eta 138 euro arteko prezioa dute. Garaiz jo-an, jadanik bat salduta dago eta.

Eskolarik gabeko bertsolaria gaueko onena

Txinparta gazte ekimenak antolatuta, abenduaren 28an, bertso-afaria egin zen herrian. Azken urteotan ohikoa bilakatu den bertso-afaria, aurtengoan, Antxeta elkartean egin zen. Bertaratutakoek "errusiar entsalada" eta oilaskoa afaldu ahal izan zituzten, eta postre bezala txokolatez bustiriko bizkotxo goxoa.

Errenteria-Oreretako eskolatik etorri ziren bertsolariak, eta San Pedrora ordu bete beranduago iristeak ekarri zituen bertso ugari. Honela , bakoitzak bere agurra egiteko orduan anekdota hau izan zuten gai nagusitzat. San Pedrora nola iritsi ez zekitela eta behin iritsita errotondan norantz jo ez zekitela.

Gai-jartzailearen lanak (han egon ginenok badakigu nor ibili zen lan hauetan), bertsolariei gai berriak ekarri zizkien gogora. Egia esan, bertsotan baino, opera kantatzen zuela zirudien, eta herrikoak Xabierren gauza hauetara ohituta egon arren, etorritako bi gazteek harriduraz begiratzen zioten. Zer esanik ez, beraiekin etorritako neskatxa, afaria hasi eta alde egin arte, barrez egon baitzen.



Jarritako gaien artean, orain tipikoa bilakatu den Bush eta Ben Ladenen arteko elkarrizketa; San Pedron hain tipikoa den porroen inguruko gaiak e.a. Mahaikideak animatzen hasi zirenean, gai luze eta arraroak ateratzen joan ziren. Arrazoi desberdinengatik (luzeegia, nahasgarria...) harrituta utzi gintuena honakoa: "Galiziara joan zara aitaren enpresarekin lanera, han, juergan zaudela, hanka puskatzen duzu, aita eta semearen arteko elkarrizketa bota". Gai honen nondik norakoak ezagutu eta gero, normala iruditzen zaigu planteatzea, baina istorioa ezagutu aurretik harrigarria iruditu zitzaigun.

Afaltzen egon ziren guztiak bertsoak entzuten ari ziren bitartean, tabernan geundenok arazo larriak genituen bertan abesten zena entzuteko. Ez musika ozenegi zegoelako edota gor gaudelako, baizik eta barran zegoen bertsolari frustratu baten erruz. Tabernari eta gai-jartzaileari esker, bertsolariei gonbitea egiteko eskatu zitzaien, eta honi erantzunez bere Gynkasa eskuan hartuta mahaira hurbildu zen herriko bertsolaria. Beste bi bertsolarien dinamikan sartzea kostatu zitzaion, baina behin erritmoa hartu zuenean, errima gutxirekin eta egindakoak zegokion garaian egin gabe, bertsoak botatzeari ekin zion. Gai nagusiak, bera eta momentuan gertatzen ari zena izan zirelarik. Etxerako erraztea bada ere, gai-jartzailearen lana izugarria izan zen, eta bertan egondako bertsolarien artean, bertsolaririk onena eskolarik ez duena.

TESTUAK: XABIER GARAGARZA/JUANRA CANO/ANDER POZA/URKO ETXEBESTE

antxo

Haurren liburuzaletasuna sustatzeko berrikuntzak egin dituzte liburutegian

Antxoko haurrek aspalditik dute ipuinekin eta liburuekin gozatzeko txokoa herrian. Baina aurtengoan, liburutegiko umeen txoko berezia berriturik ageri zaigu. Txoko argitsu, koloretsu eta alaia dute umeek eskolorduz kanpo lagun eta liburuekin gozatzeko.

Pasa den ikasturtearen hasieran haurrek itxiak aurkitu zituzten liburutegiko ateak. Izan ere, umeen gela txukundu eta biziberritzeko lanetan aritu ziren iragan urrian. Azkenik, azaroaren 19arekin, inaugurazio-eguna iritsi zen, eta zer hobe ospakizunerako orduan entzun ahal izan zuten ipuin kontaketa baino.

Liburutegiak, aste erdian, egunero zabaltzen dizkie ateak herriko txikienei. Bertara irakurtzera, margotzera edota ikaskideekin batera etxeko-lanak edo eta lan-taldeetan egin beharrekoak idaztera joan ohi dira. Horrez gain, liburuak eta ipuinen mailegua eskaintzen zaie, eta pasa den azaroaz geroztik baita bideo eta CD-ena ere. Txikia izanagatik ere, txoko ezin gustagarriago dute txikienek pertsonaiez, istorioz, pasadizoz eta kontakizunez blai ageri diren liburutegiko paretetan.



ERABILTZAILE FRANKO

Haurrak ez ezik, helduak ere maiz joan ohi dira herriko liburutegira. Pasa den ikasturteko liburutegiaren memoriak jasotzen duenaren arabera, iaz, Antxoko liburutegitik 23.000 pertsona pasa ziren. Benetan datu aipagarria.

Eta zein da erabiltzaile hauen perfila? Yolandak, liburutegiko arduradunak, azaldu digunez, erraz asko bereiz daitezkeen hainbat perfil daude: "goizez, etxekoandre eta jubilatuak etortzen dira, baita langabetuak (boletinen kontsulta) eta oposiziogileak ere, eta, udaran, haurrak". "Arratsaldeetan, nagusiki, ikasleak eta haurrak".

Liburuen mailegua, kontsultarako obrak, ikasi eta irakurtzeko gela, eta hemeroteka dira helduentzat liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak. Baina badago liburutegiak betetzen duen beste funtzio bat; izan ere, Antxon udalaren informazio gunerik ez dagoenez, asko eta asko dira edozein zalantza argitzeko liburutegira jotzen duten pertsonak.

Liburutegira hurbilduz gero, liburuetan eskuratu dituzten azken berritasunak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu. Durangon gehien saldu diren eleberriak eskuragarri dituzue apaletan. Erne, aldiz, islamismoaren inguruko gaiek zure jakin-mina piztu badute, irailaren 11z geroztik gai hau jorratzen duten liburuak gehien eskatzen direnak dira-eta. Liburutegiko bazkidea ez bazara oraindik, jakin ezazu harpidetza doakoa dela, eta bazkide egiteko, bertatik pasa eta zure izen-abizenak eta telefonoa ematea besterik ez duzula.

Lapurreta ugari gure barrutian

Azken aldi honetan, lapurreta ugari jasaten ari gara gure barrutian. Hala, zenbait denda eta establezimendu publikotan sartu dira lapurrak, eta hauetatik ahal izan duten guztia hartu dute. Lapurretak kotxetan ere gertatu dira, batez ere Usozeko aparkalekuan eta Gelasio Aranburu kalean, egun batean hamar kotxetan lapurtzera ere iritsiz. Udaltzaingoak jakinarazi digunez, lapurrak 4-5 pertsonako talde batean antolatuta daude, eta 'lana' azkar eta antolaketa-maila harrigarriarekin burutzen dute. Udaltzaingoaren gomendioa da batez ere kotxetako ateak eta leihoak ondo ixtea, lapurrek erraztasunik izan ez dezaten. Lapurreta hauek, noski, ardura eta ezinegona sortu dute antxotarren artean. Zalantzarik izanez gero, jar zaitezte Udaltzaingoarekin harremanetan 943.400.000 telefonoan.

Marrazki bizidunez jantzitako inauteriak

Aurten Antxoko kaleak marrazki bizidunezkoak izango dira, gai hau jorratzea 'Marrazki Bizidunak' alegia, erabaki baitu Pasai Antxo Gazte Asanbladak urteroko Antxo mozorrotzeko ohiturari jarraikiz. Aurten ere, noski, mozorrorik original eta politena duen tabernari saria emango zaio, eta ez da faltako ohiko inauterietako afaria ere.Beraz, badakizue, irudimena airean jarri eta ahalik eta hoberen pasa inauteriak!

Muebles Altzariak RUIZTEGUI, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA
EGUNEKO MENUAK ETA KARTA ZERBITZUA
Eskalantegi, 118
Tfno: 943 520 770
Molinao Auzoa
PASAI ANTXO

KAMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia. 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)

URTXINTXA BULE, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goiherri
C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTXO

MIMOS TABERNA
tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK ATZEGI, BRANKA

Mari Carmen Castro:

"Atzegin zure arazoa txikiagotu egiten dela dirudi"

Atzegi, adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako Gurasoen Elkartea, sortu zela 40 urte bete berri dira. Mª Carmen Castro sanpedrotarra, orain hamasei urte hurbildu zen Atzegi Elkartera, bere alaba Amaia jaiotzearekin batera, eta orduz geroztik buru-belarri dabil elkartean. Egun Oarsoaldeko Atzegiko arduraduna da, eta berarekin mintzatu gara bere esperientzia ezagutu eta elkartearen jarduna zuei gerturatzeko.

Noiz eta nola hasi zinen Atzegi elkartean lanean?
Nere alabak Down sindromea du. Amaiak hamasei urte ditu, eta hamasei urte dira hain juxtu elkartean lanean hasi nintzela. Amaia jaiotzerakoan nire auzoko ama batek deitu zidan. Berak Down sindromea zuen seme bat zeukala kontatu zidan, eta baita horien gurasoentzako elkarte bat zegoela ere. Lehendabiziko bilerara Amaiak hilabetea zuenean joan nintzen.
Zonalde bakoitzean lan-batzorde bat dago, eta egun ni naiz Oarsoaldeko arduraduna. Gure lanbatzordean hilabetean behin biltzen gara, hilabeteko lehendabiziko ostegunean Pasai Antxon. Bilera hauetan ikasturteko lana planifikatzen dugu.

Nolakoa izan da urte hauetan guztietan zuk Atzegi elkartean bizi duzun esperientzia?
Oso ona. Hasieran, adimen urriko seme-alaba bat duzunean, zure arazoarekin munduan bakarrik zaudela sentitzen duzu. Gero, bilerara joaten zarenean, gainontzeko guraso guztiekin, hainbeste jende ikusten duzu, eta jende gaztea, ni orduan gaztea bainintzen, 25 urte nituen, eta orduan konturatzen zara ez zaudela bakarrik, zure egoera berdina bizitzen ari diren bestelako pertsonak badaudela. Horrek babes izugarria ematen dizu, eta zure arazoa txikiagotu egiten dela dirudi.
Hasieran hamaika zalantza izaten dituzu; noiz hasten dira hitz egiten? Eta ibiltzen?... Beste gurasoekin zalantza horiek konpartitzea laguntza handia da.
Gero, urteak aurrera egin ahala, eta Atzegin zenbat eta gehiago inplikatu, orduan eta hobeto. Egiten diren gauzak ikusten dituzunean, sutsuki bizitzen duzu guztia.

Zein da zehazki Atzegi elkartearen zeregina?
Atzegi gurasoen elkarte bat da. Hau esatea garrantzitsua da, askotan elkartea eskaintzen diren zerbitzuekin nahasten baita. Atzegi gurasoentzako gunea da, gurasoei babesa eta laguntza emateko gunea. Informazioa, aholkularitza eta kudeaketak egiteko laguntza eskaintzen zaie elkartean gurasoei. Funtsean hori da Atzegi: arazo komun bat duten , eta arazo horri aurre egiteko bat egin duten gurasoen bilgunea.

Zeintzuk dira Atzegi elkartearen helburu nagusiak?
Hiru helburu aipa daitezke:
Familientzako gune bat izatea, gizartearen eraldaketa bultzatzea eta adimen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Eta helburu horiei begira zein egitasmo lantzen ditu Atzegik?
Lehendabiziko bi helburuei erantzuteko, elkartze-ekimena dugu, hau da, lana familiekin eta familientzat. Hainbat programa daude martxan, umearen jaiotzatik gurasoak desagertu arteko epeei erantzuteko. Dena prestatzen da: hasiera eta etorkizuna. Horrez gain, 'Inguruan' izeneko programaren bidez eta urteroko kanpainarekin, gizarte-sentsibilizazioa

lantzen dugu. Eskualdeko taldeek horretan lan egiten dute.

Adimen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, Txolarte klubak daude. Kirol-programak ere lantzen dira, eta baita udako oporretarako programak ere.

Atzegik pisuak kudeatzen ditu. Pisuak hasiera batean familia ez zuten pertsonentzat ziren. Hauek lehen psikiatrikoetan eta 3. adineko pertsonentzako zentroetan egon ohi ziren. Hasiera batean pisuak pertsona hauentzat ziren. Orain, familia izan arren, elkarbizitza-arazoak dituztenentzat edo eta independizatzeko gai direnek ere aukera badute.

Babes Fundazioa badugu ere. Honen ardura etorkizuna prestatzea da, gurasoak desagertzerakoan adimen-urritasuna duen pertsonaren ardura hartzeko seniderik ez dutenentzat. Konpromisoak sinatzen dira, eta gerora fundazioak hartzen du pertsona horien ardura.

Beste batzuetan, lege-aurreko ordezkaritza ez dugunean, 'Solos' izeneko programaren bidez laguntzen zaie familia ez duten pertsonei. Programa honen helburua bizimodu autonomoa eramaten laguntzea da.

"IMAJINATZEN DUZU BEGIAK IREKI ETA PERTSONA AZKARREZ BETETAKO MUNDU BATEAN EGOTEA?"

'Gureak' tailerrak daude ere. Hauek, egun, Sozietate Anonimoak dira, baina gu kontsortzioan gaude. Eta azkenik, Uliazpi Fundazioa, adimen-urritasun sakoneko pertsonentzat. Donostian hiru zentro daude eta Hondarribian beste bat.

Zerbitzu hauek guztiak Gipuzkoa guztian zehar eskaintzen dira. Eskualde bakoitzean gutxieneko eskaintza bat ziurtatua dago, helburua pertsona hauek beraien familiarekin egotea delako.

Pasaian zein zerbitzu ditu Atzegik?



Pasaian Txolarte aisialdi kluba dago, larunbatero biltzen dena 16:00etatik 20:00etara. Gureak ere badago, garbitegi-zerbitzuarekin eta tailerrekin. Azken hauek Errenterian eta Oiartzunen.

Txolarte taldea noiz hasi zen lanean Pasai Antxon?

1979an lehendabiziko taldea sortu zen, Txolarte Alaitu izenekoa. Urte askotan Nafarroa Etorbidean kokatua egon da. Orain San Fermin eskola ohian dago, eta laster, eraikitzen ari diren kulturgunean.

Horia hemen Amaia, Mari Carmenen alaba, Txan magoaren laguntzaile paperak betetzen. "Txan magoaren laguntzaile ofiziala bihurtu da, Pasaiara datorren bakoitzean hortxe egoten da bera, adi-adi".

Adimen-urritasuna duen pertsona bati zein onura ekartzen dizkio elkarteak?

Adimen-urritasuna duten pertsona guztiek eskuragarri dituzte elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak. Elkarteak egiten duen lanari esker, gero eta sentsibilizatuagoa dagoen gizarte batean bizitzeko aukera dute.

Laster zuen urteroko sentsibilizazio-kanpaina martxan jarriko duzue. Zein da aurten zabaldu nahi duzuen mezua?

Aurten, apirilean izango da, Aste Santua eta gero, baina mezua oraindik sekretua da. Gure mezuak, hastapenetan, dirua biltzera bideratuta zeuden. Urteekin, mezua aldatu eta orain bilatzen dugun zera da: adimen urriko pertsonentzako lekua gure gizartean; begiraiezu positiboki, begiraiezu ondo, hurbildu zaitez, imajinatzen duzu begiak ireki eta pertsona azkarrez betetako mundu batean egotea?...

Atzegizalea izateak zer esan nahi du?

Atzegizale izatea jarrera bat da. Atzegirekin kolaboratzeko hiru bide daude: familiarra bazara, bazkidea izanez; beste bide bat da senidea ez izanda ere ekonomikoki lagunduz, hau da, bazkide kolaboratzailea deitzen duguna; eta, azkenik, Atzegizale izanez. Atzegizaleak, adimen urriko pertsonen integrazioaren aldeko konpromisoa hartzen du, eta eguneroko bizitzan eramaten du aurrera bere konpromisoa; esaterako, autobusean topo eginez gero, ordainketa egiten lagunduz, eta orokorrean beraien bizitza erraztuz. Atzegizaleari hiru hilabetean behin aldizkari bat bidaltzen diogu, eta horren truke eskatzen diogun bakarra izen-abizenak eta helbidea dira.

Baliteke zuen laguntza behar duten pertsonak elkarrizketa hau irakurtzea. Zein da bidea zuekin harremanetan jartzeko laguntza eskatu zein eskaintzeko?

Bide zuzenena elkartera deitzea da, 943423942 telefono-zenbakira deituz. Bestela, beti dago aukera ezagutzen dugun familiaren baten bidez harremanetan jartzeko.

Zein paper jokatzen dute boluntarioek Atzegi bezalako elkarte batean?

Oso paper garrantzitsua. Boluntarioei esker funtzionatzen dute aisialdi-klubek. Begirale horiek gabe ez zen posible izango hauek funtzionatzea. Hauei esker funtzionatzen dute kirol-programek, eta adimen urriko pertsonek bidaiatu eta oporrak egin ditzakete udaran.

Babes fundazioan ere badago beste boluntariotza mota bat; Uliazpin dauden pertsonak bisitatzera joateko konpromisoa hartzen duten boluntarioak dira.

Zein mezu zabaldu nahi diozue elkartetik pasaitarrei?

Pasaia aldean oso boluntario gutxi ditugu, eta jendea parte hartzera gonbidatu nahiko genuke. 18 eta 40 urte arteko edozein pertsona da baliagarria; pertsona hauen alde lan egiteko gogoa baino ez da behar.Kanpainan lan egiteko pertsonak ere behar ditugu. Denak gara baliagarriak. Gauzak ez dira bakarrik aldatzen. Lan egitea beharrezkoa da.

Zertaz mozorrotuko zenuke Pasaia?

1 Jon Lertxundi.
10 urte. Ikaslea.

Nik denak "txuloz" jantziko nituzke, ilea atzeraka orraztuta eta trajearekin jantzita.

2 Koro Arrieta.
34 urte. Udaleko langilea.

Gure herria nahiko misteriotsua denez, herri guztia sorginez beteko nuke, gero akelarre finak egiteko.

3 Osvaldo Parma.
Saltzailea.

Nik "Argentina" gaia hartuko nuke Pasaia mozorrotzeko.

4 Xabier Garagarza.
24 urte. Ikaslea.

Erroma klasikoaz. Mundu klasikoa asko gustatu zait beti, eta gainera ikusgarria litzateke jende guztia erromatarrez jantzia ikustea, arropa gutxirekin.

5 Edurne Quintans.
34 urte.

Pasaian arrantzale asko dagoenez, "itsasoa" izango litzateke nik hartuko nukeen gaia. Polita litzateke denok arrantzalez mozorrotuta joatea.

6 Lourdes Gonzalez.
39 urte. Administraria.

Erdi Aroko giroa ekarriko nuke nik herrira: jendea zaldi gainean, gazteluak, merkatua, dantzak... Garai batetako herri xehearen festa deskontrolatua.

7 Tania Trecet.
12 urte. Ikaslea.

Sorginen munduaz, niri sorginak asko gustatzen zaizkidalako.

8 Borja Etxeberria.
9 urte. Ikaslea.

Eskeletoz, denak eskeletoz jantzita.

9 Amaia Gil.
12 urte. Ikaslea.

Nik zirko bat egingo nuke, eta barruko pertsonak pailazoak eta horrelakoak izango lirateke.

10 Alazne Torres.
27 urte. Soziologoa.

Denak Drag Queenez mozorrotuko nituzke. Horrela herria oso animatuta egongo litzateke.

11 Victor Correa.
39 urte. Gazta eta mami saltzailea.

Herriko marinel giroa kontutan harturik, piratak, kortsarioak, egurrezko hankak, garfioak eta matuteak jarriko nituzke nik kaleetan zehar.

12 Gabi Lopez.
37 urte.

Nik Mexikarrez mozorrotuko nuke Pasaia, polita eta erreza delako.

TESTUA URKO ETXEBESTE ARGAZKIAK IÑAKI BERRIO, AZTI

Kostaldearen ikertzaile isila

Pasa den abenduaren hasieran, Pasaiako badiaren irteeran dagoen Arando Grande itsasargian, estazio ozeano-meteorologikoaren aurkezpena egin zuen gure herrian kokaturik dagoen AZTI fundazioak. Estazio honen helburua gure kostaldearen ezagutza ahalik eta zehatzena lortzea da, horrela, estazioak lortzen dituen datuak arrantzaleak, itsasontzi komertzialeko lemadunak edo, besterik gabe, Zurriolako hondartzara surf egitera doan pertsonak eskuragarri izango ditu, bere interesen arabera erabil ditzan, hamar minuturo kostaldearen egoeraren berri emango baitigu estazioak Internet bidez. Hori bederen argitu dizuegu.

AZTI fundazioak 8 urte baino gehiago daramatza elkarlanean Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Obra Publikoen sailarekin, batez ere kostaldeari dagozkion gaietan, portuen sarreretako itsasargien mantentze eta hobetze lanetan, olatuak neurtzeko detektagailuen instalakuntzan, baita gure kostaldean egin beharreko lan publikoen aholkularitzan. Testuinguru honetan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egindako hitzarmen berezi baten barruan, kokatu behar da estazio ozeano-meteorologikoa eraikitzeko ideia. Estazioaren beraren instalakuntza izan zen lehenengo helburua, eta lan zail eta neketsu baten ostean helburua lortua delarik, beste hauek dituzte uneotan betekizun:

-Euskal Metereologi Zerbitzuaren lanarekin osagarria izango den informazioa lortzea, aipatu erakundeak ematen dituenak osatzeko.

-Lortzen diren datuak uneoro Internet bidez era publikoan zabaltzea.

-Lortzen diren datu hauekin guztiekin datu-base bat osatzea, etorkizunean edozein erabiltzailek nahiz ikerlarik erabili ditzan.

Adolfo Uriarte, estazio ozeano - meteorologikoaren arduraduna.

Adolfo Uriarte, estazioaren (lehorreko) arduradu-

majestik

Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.

nak dioskunez, "fenomeno meteorologikoak estuki loturik daude itsas fenomenoekin, eta alderantziz; eta horrela, bi fenomeno hauen ezagutzaren konbinazioarekin, ekaitzak, galernak, lainoen osaera edo beste edozein bat-bateko aldaketa meteorologiko aurreikus daiteke", gainera "estazio ozeano-meteorologikoa bezalako sistema hauekin, itsasoko edozein jarduera noiz, non eta nola egin erabaki daiteke, hauek ematen duten informazioa arrantzaleentzat oso baliagarria izan baitaiteke, itsasoaren baitan dauden aldagai guztiak kontuan hartzen baititu estazioak, hala nola, itsasoaren tenperatura 5 sakonera desberdinetan, itsas azaleko nahiz itsas barneko korronteen norabidea, olatuen altuera.



www.azti.es orrialde elektronikoan momentuan estazioa jasotzen ari den datu guztiak daude eskuragarri. Datu hauek, hamar minuturo berritzen dira. Ikusten denez, hainbat aldagaien araberako kontsultak egin ditzake edonork.

LODIERA BEREZI BAT DUEN KABLEATUA ERABILI DA, IPARRALDEKO ITSASOAN PETROLIO-PLATAFORMAK INSTALATZEKO ERABILTZEN DEN BERBERA, ALEGIA.

Gainera, beste hainbat datu eskuragarri daude www.azti.es web-orrian, hamar minuturo eguneratzen direlarik".

ESTAZIOAREN APLIKAZIOAK

Estazioko sistemek jasotzen duten informazioa, bai denbora bai forma aldetik, gure kostaldean sortzen diren arazoei erantzuna ematera bideratua dago. Hona hemen zerbitzu nagusiak:

-Itsasoaren egoerari buruzko uneoroko informazioa; hau bereziki arrantzan eta garraioan dabiltzan ontzientzat da interesgarria.

-Kostan gertatzen diren zenbait fenomeno jasotzen dituzten datu-baseak kontsultatzeko aukera, hondartzetako arearen urritze-egoera, edota kostaldeen higagarritasuna bezalako prozesuen berri izateko.

-Bestelako informazioa eskuratzeko ahalmena. Balizko istripu ekologikoetan, elementu kutsatzaileen ezaugarrien arabera neurriak hartzeko; sortzen ditugun eta itsasazpiko emisarioen bitartez itsasora jaurtikitzen diren zabor-urak kontrolatzeko; itsasontzi-istripuen ondorioz egon daitezkeen gorpuen kokagunea edo ibilbidea (korronteen araberakoa) aurreikusteko…

-Arrantza biologiarako baliagarria izan daitekeen informazioa.

-Portuetan egin beharreko inbertsioetarako lagungarria izango den informazioa; olatuen neurriak, korronteak edo itsas lurrari buruzko datuak ere biltzen baititu.



Arando Grande itsas argiaren gainekaldean kokatuta dagoen emisorera datuak iritsi aurretik, datu hauek itsas-barnean kokatutako hainbat eta hainbat sensoreren (goiko bi irudiak) bidez jasoak dira. Sensoreen instalakuntza bereziki zaila izan zen, itsas-barnean 25m-tara lan egitea oso zaila baita. Esan bezala, emisorera datuak iritsi ondoren, honek AZTI fundazioak Pasaiako portuan dauzkan instalakuntzetara bidaltzen ditu aipatu datuak, han (beheko irudia) prozesatu eta publikoaren esku era ulergarri batetan uzteko.

INSTALAKUNTZAREN XEHETASUNAK

Beti da zaila itsas barneko lana, eta are zailagoa egin nahi den lanak hainbesteko zehaztasuna eskatzen duenean, estazioak erabiltzen dituen sistemek konplexutasun eta aldi berean sentsibilitate handia baitute. Horretarako, itsas barnetik, datuak jasotzen diren tokitik, Arando Grande itsasargiaren gainaldean kokaturik dagoen emisorera, hainbat kableatu eta trikimailu elektronikok bidaltzen dituzte datuak, eta datu horiek AZTIko egoitzan jasotzen dira). Aipatu Itsasargiaren gainaldean, emisoreaz gain, estazioari argindarra ematen dioten elementuak daude kokatuta: eguzki-panela, aerogeneradorea eta bateriak. Esan bezala, datuak itsas azpitik datoz datuen emisoreraino, hala, datu hauek itsasoaren gainaldean, eta hortik behera 5 sakonera desberdinetan kokaturik dauden sentsoreek jasotzen dituzte. Sentsore hauen instalakuntzarako lodiera berezi bat duen kableatua erabili da, Iparraldeko Itsasoan petrolio-plataformak instalatzeko erabiltzen den berbera, alegia.

Emisoreak bidaltzen dituen datu guztiak, Trintxerpe aldean AZTI fundazioak duen egoitzara iristen dira, hemen datuak irakurri eta hauei zentzu bat ematen zaielarik. Datu hauek hamar minuturo bidaltzen ditu emisoreak jasotze-zentrora, unean bertan datu hauek Internet bidez edozeinek eskuragarri dituelarik www.azti.es helbidean.

AURRERANTZEAN ZER?

Pasaian kokatu den estazio ozeano-meteorologikoa ez da izango euskal kostaldean jarriko den bakarra, Bilboko portuko bokalean antzeko ezaugarriak izango dituen instalakuntza kokatzeko asmoa baitago. Horrela, gure kostalde nahiz itsasoaren ezagutza osoago bat izateko aukera izango dugu. Honekin batera, oraindik osaturik ez dagoen datu-base bat eratzeko asmoa dago, beti ere publikoa izateko helburuarekin, izan ere, estazioek eskainiko duten informazioak helburu praktikoa izaki, itsasoan lan, kirol egin edo, besterik gabe, berau maite eta ezagutu nahi duen orori zuzenduta dago.

Irakasleentzako prestakuntza ikastaroa

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak euskaltegietako irakasleentzako trebakuntza-ikastaro bat antolatu du. Ikastaroaren ardatza enpresetako erabilera-planak izango dira eta hauek garatzeko faseak, metodologiak eta didaktika.
Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak lanmunduan euskararari sarbidea egiteko plana egin du eta 2002an plan horren inplementazioari ekingo dio. Eskualdea euskalduntzeko eragileek, ordea, trebakuntza-premia sumatu zuten, eta ikastaro hau, hain zuzen, behar horiei erantzutera dator. Ikastaro honetan euskara planen nondik norakoak azaltzeaz gain, esperientzia konkretuak ere aztertuko dira, eskolak emateko teknikak eta metodologiak lantzeaz gain.
Ikastaroa urtarrilaren 19an eta 26an eta otsailaren 2an eta 16an egingo da Errenteriako Xenpelar etxean goizeko 09:30etik eguerdiko 14:00ak arte.

EGITARAUA

Urtarrilak 19
-9:30ean, sarrera.
-9:40an, Miel Guridi (Elhuyar) "Zer dira erabilera-planak?"
-11:40an, atsedena.
-12:00etan, Juan Jesus Alberdi Elayko Zuzendari nagusia. "Erabilera-planaren aplikazioa"
Σ 14:00etan, amaiera.

Urtarrilak 26
-9:30ean, Arantza Aurrekoetxea Eusko Jaurlaritzako Euskara Planen Zuzendaria. "Euskara Planak"
-11:30ean, atsedena.
-12:00etan, Miel Guridi (Elhuyar) "Erabilera-planetako teknikariaren egitekoak".
-14:00etan, amaiera.

Otsailak 2
-9:30ean, Kristina Pavo, Debagoienako AEKren trebakuntza-lantaldekoa. "Eskolak nola eman".
-11:30ean, atsedena.
-12:00etan, Juana Mari Ezker (AEK), Egalik egitasmoaren arduraduna. "Egalik egitasmoa".
-13:00etan, amaiera.

Otsailak 16
-9:30ean, Juan Inazio Marko (SEI) "Erabilera-planetako teknikariaren egitekoak".
-11:30ean, atsedena.
-12:00etan, Juan Inazio Marko (SEI) "Erabilera-planetako teknikariaren egitekoak".
-13:00etan amaiera.

Pasaiako odol-emaileak

Pasaiako odol-emaileek 2001 urtean izandako datuak jakinarazi dizkigute. Datuen azalpen txiki bat emateaarren, esan dezagun odol-emateek pixka-pixka bat gora egin dutela. Hala ere, Pasaiako odol-emaileen elkarteak odola emateak duen garrantzia berriro ere gogoratzeaz gain, jarraian aurkeztuko dizkizuegun datuak 2002 urtean gainditu behar direla ere azpimarratu digute, baita pasaitar guztiei odola emateko gonbitea bota ere.
Hona hemen 2001eko datuak:
Antxo: 456 odol-emate (449 2000 urtean).
Donibane: 91 odol-emate (83 2000 urtean).
Trintxerpe-San Pedro: 213 odol-emate (219 2000 urtean).
Hurrengo Brankan 2002 urteko hilabete bakoitzeko odol-emate datak eta tokiak jakinaraziko dizkizuegu.

Portuko Agintaritzak itsas agenda euskaraz argitaratu du

Portuko Agintaritzak itsas agenda argitaratzen du urtero, baina aurtengo edizioak badu berritasun bat, izan ere, lehen gaztelera hutsean irakurtzen genuen lekuan, orain euskarak badu bere lekua. Portuko Agintaritzak Elhuyarren laguntza izan du agenda osatzeko garaian, eta elkarlan honen ondorioz, nabigatzeko oinarrizko arauak, itsasgorak eta itsasbeherak, arantza-garaiak, eta itsasoaren inguruko beste hainbat informazio euskaraz irakurtzeko aukera izango dugu.

Lanbide Heziketarako euskarazko ikasmaterial berriak

Zamalbide Institutuak kalitatezko lanbide heziketa ikasketak euskaraz eskaintzeko ardura bere gain hartu du azken urteotan. Erronka honi aurre egiteko, lanbide heziketarako euskarazko ikasmaterial ezari erantzun behar izan dio; horrela, Hezkuntza Sailak kudeatutako EIMA deialdietan parte hartuz, ikastetxean sortutako hainbat ikasmaterial argitaratu da.
Behar berriei erantzun nahirik, 2002ko irailean, Zamalbideko bi irakasle taldek beste bi ikasmaterial argitaratuko ditu Elhuyarren eskutik: "Lurreko eta sateliteko telebista-seinaleen hartzea" eta "Argi bidezko komunikazioa. Zuntz optikoa", biak ere, hainbat elektronika familiako zikloetarako baliagarriak.

lehiaketa *irabazleak*

Aurreko hilabeteko br*ank*an egiten genizuen galderaren inguruan asmatzaileen artean **Aitor Roca** izeneko brankazaleak eramango du saria. Galdera, Pasaia osatzen duten lau barrutietatik zeinek zuen biztanlerik gutxien zen, eta erantzuna hauxe: Donibaneko barrutiak du biztanlerik gutxien. Irakurle askok eman duzue erantzun zuzena, baina asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, hilabete honetako sariaren irabazlea aipatu **Aitor Roca** izan da.
Beraz, zuretzat izango da ELKARLANEAN argitaletxeak eskaintzen duen saria, oraingoan Jon Arretxe idazlearen 'Larunbatak' elaberria iango delarik. Beraz, zorionak Aitor eta erne jarraian datorren hilabete honetako galderari.



lehiaketa *galdera*

Hilabete honetako galdera hauxe da:

Zenbat herrirekin egiten du muga Pasaiak?

Erantzunak horrela helarazi diezaizkigukezue:
e-postaz: branka@euskalnet.net
postaz: branka pasaiako herri aldizkaria, eskalantegi 38 behea, 20110, pasaia
telefonoz: 943 341 045ra deituaz

lehiaketa *saria*

Honatx hilabete honetako erantzun irabazleak eramango duen liburuaren erreseina

Izenburua: Galtzerdi suizida. Egilea: Mariasun Landa. Marrazkiak eta diseinua: Antton Olariaga. Orriak: 96. Data: 2001eko abendua. Argitaletxea: ELKARLANEAN

"Orain dela aste batzuk gertatu zen: laugarren solairutik bota nuen neure burua. Eta harrezkero gertatu zaizkidanak kontatu nahi nituzke hemen, niri, bederen, sinestezinak eta harrigariak iruditzen baitzaizkit".



Honelaxe hasten da Mariasun Landaren nobela berria. Antton Olariagaren koloretako marrazkiek are ederrago bihurtzen duten obra biribil hau.
Galtzerdi bat delako protagonista nagusia darama liburuak hain izenburu bitxia, edonori jakin-mina pizten diona. Izan ere, galtzerdi baten ahotan jarri ditu egileak edonork izan ditzakegun zalantzak eta burutazioak, senti dezakegun bakardadea edo maitasuna, etsipena edo bizi-poza... Fikziozko kontakizuna izan arren, gizakion eguneroko errealitatea islatzen du obra honek. Galtzerdi ausart batek lehenengo pertsonan kontatuko digu bere burua laugarren solairutik bota zuenetik maitasunaren kilimak sentitu zituen unerainoko gorabehera guztiak. Abentura eta erreflexioz betetako liburua delako da egokia nahiz gazte eta nahiz helduentzat.
Eta ezin da aipatu gabe utzi Antton Olariagak liburu honetan egindako lana. Mariasunen testuari etxe eder bat egin dio arkitekto handi honek.

zuk zeuk!

MUSIKA
MUSE
'Origin of symmetry'



Normalean, talde honi buruz hitz egiterakoan Radiohead taldearen eta jada desagertutako Jeff Buckley bakarlariaren izenak aipatzen dira, aipamen hau ez delarik ez dohainezkoa, aurrekoen eragin zuzena sumatzen baita disko hau entzuten hasi bezain laster. Nahiz eta eragin hauek oso argiak izan, talde honen musikak badu berezko nortasuna; *Plug in Baby, New Born* edo *Bliss* bezalako abestiak ez dira irratian egunero entzuten diren betiko hiru minututako pop singelak, baizik eta erakargarritasun berezia duten sentimendu adierazpen musikalak.

Azken ezaugarri hau izan daiteke talde honen musikaren arerio nagusia, abesti batzuetan ipintzen den lirismo gehiegiak musika gogaikarri bihurtzeko arriskuan jartzen baitu. Dena den, besteak beste Travis eta Gorillaz proiektuarekin batera, Brit Pop eztandaren errautsetatik sortutako talde interesgarrienetariko bat iruditzen zait hau.∎

IGOR MINTEGIA

LIBURUA
'PALESTINA ZAURITUA'
Imanol Murua Uria

Denbora igaro da liburu honek kalea ikusi zuenetik, baina hala ere, egun puri-purian dagoen gai bati buruz hitz egiten digu: herri palestinarraren borroka. Egilearen aurreko lana izan zen "Su etena Belfasten" liburuan bezala, kronika da hemen nagusi, alde bateko (Palestinarrak) zein besteko (Israeldarrak) bizimodu, kezka eta erreflexioak islatzen saiatzen delarik egilea.

Han bertan elkarrizketatu zituen preso palestinarra, Jerusalemeko udaleko goi kargu judutarra, herritar xumeak edo judutar ultrak agertzen ditu zarauztarrak. Historiaren eta termino batzuen deskripzioa oso baliagarriak dira ondoren azalduko zaizkigun pasarteetan gauzak hobeto ulertzeko, nor den nor eta zein den bere lekua gatazka honetan. Naziek bezala, israeldarrek argudio antzekoak darabiltzate herri palestinarraren aurka ekiteko; Hitlerren garaiak ahaztu al zaizkie Daviden jarraitzaileei?.

Gaurdaino dirauen gatazka hau hobeto ulertzeko liburu baliogarria dela esango nuke, gatazkaren alde gogor eta ederrak ikusi daitezkeelarik.∎

ENAUT GANTXEGI

MUSIKA
KONTZERTUA
Bilboko erakustazokan, 2002-01-12

Egia esan gehiago espero nuen kontzertu honetatik. Hasteko, jende gutxi bildu zen nere ustetan eta talde batzu motz gelditu ziren beraien emanaldian.

Tonino Carotone abeslaria zorte handirik gabe pasa zen eskenatokitik, Berri Txarrak taldeak etzituen denak gustura utzi, S.A. eta RIPen jarraitzaile sutsuen iritziz, bi talde hauek beraien kontzertu kaxkarrenetakoa eskeini zuten ikuslegoaren kalterako. Baina etzen dena oker joan noski, Su Ta Garek eta Banda Bassottik kontzertua bere osotasunean pittin bat orekatu baitzuten. Lehenengoek, entzuleak zuzpertu zituzten (Eibarko taldean ohitura den bezala); beraien betiko kantek jendearengan eragina dute oraindik dudarik gabe. Musikari italiarrek beraien partetik jendea kantan eta dantzan ipini zuten doinu mugikor eta erreibindikatzaileekin, erromatarrak bikain berriz ere.

Azkenean zapore gazi-gozo batekin etxera eta gainera derbia galdu genuen; egun borobila.∎

ANDER POZA

Horrelakoak ginen



Eta arrantzaleen eskolara joan nahiko banu?, eta Udal Euskaltegira? Eta Osasun zentrora? Zarranz argazki dendak utzi digun argazki hau atera zuten egunean (garaian) oraindik orain ezinezkoa zen toki horietara guztietara joatea, hauek eraiki gabe zeudelako. Horrelakoa zen gure Trintxerpe duela ???? ez dakigu zenbat urte. Ea zuk esaten diguzun!

Iraganari begirada

PASAIA (SAN JUAN ETA SAN PEDRO) ETA HONDARRIBIAREN ARTEKO LEHENENGO ESTROPADA

1871ko irailaren 8an, Guadalupeko Amaren egunean, Hondarribiko arrantzaleek pasaitarrak desafiatu zituzten. Hondarribitik Donostiarainoko estropada batean neurtu behar zituzten indarrak, eta nola ez, izenarekin batera dirua zegoen jokoan, urrezko txanpon bat hain zuzen ere.
Desafio honek ikusmira izugarria sortu zuen bai Pasaia eta Hondarribian bai inguruko herri guztietan. Honela, estropada egunean izugarrizko jendetza bildu zen Hondarribia, Pasaia eta Donostian. Hasi ziren lanean eta Pasaiara iristerako gure herrikoak alde nabariarekin zihoazen aurretik. Hondarribiarrek alde hau ikusirik, Pasaiara iristerakoan arraun egiteari utzi zioten. Pasaitarrak, aitzitik, zeharo nekatuak baina Donostiarainoiritsi ziren

BORDAUNDI